

ETA AKORDIO HAUEK... BETEKO  
DITUZUE SAKRISTIAN GERATU  
GABE, EZTA?



- Datorren krisialdia: txitxarra eta inurria • Nominak eta kitapenak
- Jarraipeneko saria: justiziak arrazoa ematen digu • Irakasleon asteko lanaldia: noiz arte zentzugabekeria? • Agenda Soziala • AZPkoen txokoa
- Azaroak 25 • Berriak

# aurkibidea

## Irakaskuntza Pribatua

Datorren krisialdia: txitxarra eta inurria	2
Nominak eta kitapenak	3
Jarraipeneko saria: justiziak arrazoia ematen digu	5
Irakasle on asteko lanaldia	5
Agenda soziala	6
AZPkoen txokoa	6
Azaroak 25	7
Berriak	8

### Txitxarra eta inurria, datorkigun krisia.

Eusko Jaurlaritzaren 2009rako aurrekontua oraindik ez dugu ezagutzen. Eta krisiaren aitzakiarekin proiektu murriztatzaile, meharra,... nahi diozuen izena jarri, sartuko digutelakoan gaude. Beraz asuntza gaizki dagoela eta *poltsikoari begiratu beharko zaiola* esango digute.

Madrilgo gobernuak hezkuntzarako atera dituen aurrekontuetan ikusi dugu, aurreko urtearekiko %1,9a bakarrik igo da, gutxigatik azken urteetako baxuena izan delarik (2004an PPrekin %1,3). Gastuak gutxitzeko, soldatei mugak jartzeko, aurreko konpromisoak ez betetzeko, murrizketak justifikatzeko,... krisiari buruz hitz egiten dute.

Krisia ez da igarriko AHT moduko azpiegitura handietan, proiektu enblematikoetan, publizitatea edo irudia zaintzeko gaietan; enpresetako dirulaguntzetan,... Krisiak langileengan izango ditu ondorioak, betiko kankar entzun beharko ditugu patronalaren edota administrazioaren ahotik gure errebindikazioak planteatzen ditugun bakoitzean. Azken urteetan planteatzen ari garen zenbait gairen inguruan hori da gertatuko dena:

- DBH1/ DBH 2ren homologazioa
- Pertsonal ez dozentearen soldataren homologazioa
- Pertsonal dozenteari karga lektiboa gutxitzea

Uste dugu diru publikoarekin sostengatutako ikastetxeetan lan egiten dugunon finantziatorako modelo berria kaxoi batean ahaztua geratuko dela. Azken finean Txitxarrak bezalakoak gara lana egin beharrean abestu egiten dugu.

Eusko Jaurlaritzak modu ez zuzen batean gure baldintzak negoziatzen jarraituko du, mahaitik urrun,... Eta bitartean, patronalak beraien inurritxoena lana egingo dute, datozkigun garai gogorrei aurre egiteko ale batzuk biltzea lortuko dute. Beraientzat bai zerbait egongo dela han edo hemen

Eta krisia bai izango dela 2008ko lan hitzarmena ia negoziatorik gabe eta beherantz jota sinatzeko aitzakia. Gehiengoa duen sindikatuak bere hasierako eskakizunak gutxitu ditu, hau da, finantzatzeko modelo berri bat ez den beste ezer ez duela sinatuko, orain hobetzeko proposamenetik, % 95a, kanpo geratzen da. Lur hartzeko bidea bilatzen du eta hor daude krisi ekonomikoa eta Eusko Jaurlaritzako interinitateko egoera.

ETA STEE-EILASen bitartean gurera. Ez dago akordio posiblerik patronalak aurreko akordioan sinatu zutena betetzen hasten ez diren bitartean. Noizko dozenteen asteko lanaldiaren erregulazioa? Ze zentzu dute ikastetxean 34 iraute ordu? Behin behinekoak izan diren langileen antzinatasun erreala errekonozitzeko zergatik jartzen dira trabak?

*Kristau Eskolak* edo *AICEK* beraien lan akordioko zenbait artikuluri egiten dieten irakurketak oinak lurren jartzen dizkigu. Gure eskubideen gaintik jartzeko prest daude hauengatik borroka egiteko kapazak ez bagara. Beharrezkoa da denuntzia judizial eta mobilizazioetara jotzea.

Hauk dira gure gairak

# NOMINAK ETA KITAPENAK

## HAINBAT KONTZEPTU

**Oinarrizko soldata:** lanpostu bakoitzerako hitzarmenean ezarritako hilabeteko soldata. Gure hitzarmenean 14 ordainsaritan banatzen da. Denen batura egin ezkeror urteko oinarrizko soldata ateratzen da.

**Antzinasuna:** gure hitzarmenean antzinasuneari hiru urteko bakoitzagatik osagarri edo kantitate bat dago.

**Soldata gordina:** oinarrizko soldata, antzinasunaren osagarria edo hirurtekoa eta karguagatik, dietengatik edo enpresa borondatez ordaintzen ari den osagarrien arteko batura da.

**Atxikipenak:** Soldata gordinetik P.F.E.Z. eta Gizarte Segurantzako kotizazio kontzeptu gisa kentzen diren kantitateak dira.

**Soldata garbia:** Soldata gordinetik atxikipenak kendu eta gero geratzen den kantitatea da.

**Kotizazio oinarria:** Gizarte Segurantzako atxikipenak kalkulatzeko balio du eta Administrazioak pentsioak, amatasun edo aitatasun prestazioak, langabezia edo ezintasun prestazioak,... kalkulatzeko erabiltzen duen kantitatea da. Hilabeteko soldata gordina eta bi aparteko ordainsarien hainbanapena batzen kalkulatu da. Hainbanapen hau hilabeteko soldata gordinaren seirena besterik ez da.

**Aparteko ordainsaria:** Gure hitzarmenean bi aparteko ordainsari ditugu sei hilabetekoak, bat ekainean eta bestea abenduan. 6 hilabete lan egiten ez badugu osatzen, pagaren zati proportzionala dagokigu (hilabete bakoitzetik pagaren seirena). Aparteko ordainsari honek beste edozein pagako soldata gordina bezala izango du, baina soldata garbia zerbait handiagoa izango da, P.F.K.Z.ren atxikipena besterik ez duelako. Hau horrela da lehen aipaturiko hainbanapena paga bakoitzari dagokion Gizarte Segurantzako atxikipena hilabetero egiten delako.

**Kitapenaren nomina:** Kitapena kontratu bat bukatzerakoan zor diguten kantitatea da, bukaerako kontu-garbitzea da. Honako kontzeptu hauek kontutan hartu behar ditu:

- Atzerapen guztiak, baldin baleude .
- Azken hilabetean lan egindako egunen soldata.
- Hurrengo aparteko ordainsariaren zati proportzionala. Azkeneko sei hilekoan lan egindako hilabete bakoitzaren seirena bat (urtarrila - ekaina edo uztaila-abendua).
- Abuztuko oporraldiaren zati proportzionala (hartu ez bazen), azken urtean lan egindako hilabete bakoitzetik paga osoaren hamabiren bat (iraila - abuztua).

**STEE-EILASek eskaintzen dizu**

**Ezagut gaitzazun nahi dugulako, jaso ezazu etxean gastu eta konpromisorik gabe: ue nos conozcas, recibe en tu casa, sin ningun gasto ni compromiso:**

- ✓ *Irakaskuntza Pribatua* izeneko aldizkaria.
- ✓ *Inforriak* (berehalako argibidea)

Egin dezakezu posta arruntez, korreo elektronikoz edota gure Webean:

[www.stee-eilas.org](http://www.stee-eilas.org)

# NOMINA EREDUA

ENPRESA		LANGILEA	
HELBIDEA		IFZ	G.S.Z.
IFK		LAN MAILA	ANTZINATASUNA Kontratu data
KKK		KOTIZAZIO TALDEA	1: lizentziatuak eta 2: diplomatuak

Likidatzeko aldia	Egun kopurua	30 egun hilabeteko
-------------------	--------------	--------------------

**I. SORTZAPENAK**

Oinarrizko soldata	Hitzarmenean ezarritako hileko soldata
Antzinasuna	3 urteko antzinasuna bete arte ez da kobratzen
Soldata-osagarriak	Ikastetxeak ordaintzen dituen beste osagarriak
<b>A. SORTZAPEN GORDINA</b>	Soldata+antzinasuna+osagarriak

**II. KENDURAK**

**1. GSari dagozkion kotizazioei langilearen ekarpenak eta baterako zerga**

	Portzentaia	
Kontingentzi komunak	%4,70	Portzentai hauek kotizazio oinarriaren arabera ezartzen dira (ikus behean)
Langabezia	%1,55	
Lanbide Heziketa	%0,10	
<b>EKARPEN OSOA</b>		Hiruren batura

**2. PFEZ**

	Taulak ofizialak ezartzen dituen portzentaia eta gordinari aplikatzen da	
<b>B. KENTZEKO GUZTIRA</b>	Gizarte Segurantza + PFEZ	
<b>GARBIA EDO JASOTZEKO OSOA (A-B)</b>	<b>Bruto(A)-Deducciones(B)</b>	
Enpresaren sinadura eta zigilua	Data	Jaso dut

**GIZARTE SEGURANTZARI KOTIZAZIO OINARRIAREN ZEHAZTAPENA**

1. Gertakizun arruntei dagokien kotizazio oinarria

Hileko soldata	Soldata gordina
Aparteko pagen hainbanapena	Bi pagen batura zati hamabi
<b>GUZTIRA</b>	Gordina + hainbanapena = kotizazio oinarria

**Gabonetako eta ekaineko aparteko pagetan gizarte segurantza ez da atxikitzen, PFEZ soilik**

ZALANTZARIK BADUZU EDOTA ONDO EZ DIZUTELA ORDAINTZEN PENTSATZEN BADUZU JARRI HARREMANETAN GUREKIN. URTEBETEKO EPEA DUZU ERREKAMAZIO EKONOMIKOAK EGITEKO. EGOITZETAN PROZEDURAZ INFORMATUKO ZAITUGU



## Agenda soziala: V. Europako Jendarte Foroa (EJF) 2008-09-14/17

*"Europar, bata bestearen kontra jartzen gaituzte: etxebizitza-merkatuan, lanean, migrazio bulegoetan... beldur sentimendu bat zabalduz. Onartu egin behar ahal dugu elkarrekiko mesfidati eta beldurti izatera bultzatzen gaituen mundua?"* Horrela hasten zen V. EJFren programa biltzen zuen egunkaria. Programa horren eraikuntzak berak, egun mundua gobernatzen duen neoliberalismoaren lehiakortasunak alternatiba baduela erakutsi nahi izan zuen: sindikatuen, Gobernu Kanpoko Erakundearen eta jendarte mugimenduen antolakuntzarako kultur ezberdinen arteko kooperazioa eta sare-lana.

Horrela, bost egunetan zehar milaka europarrek parte hartu dute antolatutako 250 ekimen ezberdinetan: asanbladak, mintegiak, tailerrak, ekintza kulturalak... Hezkuntzaren inguruko mintegietan egoteaz gain, STEE-EILASen hiru ordezkariok zerbitzu publikoak, genero berdintasuna, nazioarteko elkartasuna edota arrazakeriaren kontrako borroka ardatza zituzten bestelako ekintzetan ere parte hartu dugu.

Hezkuntza gaitzat zuten mintegien partehartzea 25tik 75ra bitartekoa izan da. Lehen aldiz, Ekialdeko Europako hainbat herrialdeetako ordezkariak parte hartu dute (Errusia, Bulgaria, Polonia...), foroaren leloa horrela gauzatzen hasiz: *"Beste Europa mota bat egiten: Ekialdea eta Mendebaldea elkarrekin, borrokarako eta alternatibetarako aliantzak eraikiz"*. Horiez gain, Frantziako, Italiako, Greziako, Britainiako, Suediako, Alemaniako eta estatu espainiarreko ordezkariak egon dira.

Hezkuntza-mintegietan herrialde bakoitzaren egoera azaldu da eta pribatizazioaren dimentsio europarra argiro islatu: zerbitzu publiko guztiak jomugan duen neoliberalismoa, modu anitz bidez, hezkuntza publikoaren pribatizazioa bultzatzen ari da Europa osoan zehar.

Egoera horren aurrean, han bildutako ordezkariok Europa mailako mobilizazio unitariorako deia egitea adostu genuen, horretarako hurrengo azaroa proposatuz.


Komunikazioen zein proposamenen inguruko informazio gehiago gure web gunean izango duzue.

## AZPkoen Txokoa

### Ikasturte Hasiera

★ Berriz ere irailan gaude. Hilabete polita benetan, indar berriekin hasteko, lagunak edo lankideak berriz ikusteko,... Dena ondo, salbuespen batekin: beste urtebete hitzarmena eguneratu gabe. Ordenagailuak bezala gaude, itxoiten, korreo elektronikoa bezala, ez da sartzen ez da irteten ere; web orriak bezala, unibertsoan galduak. Denok lanari ekin diogu joan den urteko soldata eta KPI altuarekin. Zenbakien atzetik korrika gabiltza. Ez gaude krisialdian, gu gara krisia. Betikoa nahi dugu: lan baldintzak hobetzea, urteko eta asteko lanaldiak, orduen banaketa, baimenak... Mugitzen den zinta batean korrika egiten ari gara, ahultzen gaitu, nekatzen gaitu, baina paisaia betikoa da. Indar berriak edozein moduan bilatu behar da: umeen garrasian jolastokira joaten direnean, irribarrea eskaintzen dizutenean beraien marrazkia oso polita delako, beraien begiradetan hitz berria irakurri dutenean, egunero agurtzen zaituen lankide baten laguntzan, nire bulegoaren leihotik ikusten dudana ostadarra.

*Maité A.R*



## TRATU ONEN BIDEAN, HARREMANETAN, (BERDINTASUNA) AZAROAK 25, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

Aurten STEE-EILASen Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako egunaren harira Tratu Onak aldarrikatzeko beharra ikusi dugu tratu txarrak ekiditeko. Beraz, aurtengo azaroaren 25eko proposamenak ildo honetatik joango dira eta zaharrak berri, berriz ere eskolan era hezkidetzailan lana egitera animatzen zaituztegu. Hezkidetzaren helburua genero berdintasunean hezte da, diskriminazioa sortzen duten desberdintasunak errotik kentzeko; diskriminazio hauen erarik larriena genero indarkeria izanik. Beraz, tratu txarren praktikak (indarkeria, agresibitatea, diskriminazioa...) tratu onen praktikengatik (bizikidetzak, kooperazioa, kolaborazioa...) aldatzean datza gakoa. Horretarako ezinbestekoa iruditzen zaigu ikastetxeetan harremanei duten garrantzia ematea, hezkuntza praktikan harremanei garrantzia emanez, generoko estereotipoak ezabatzen dituen giroa sortuz eta elkarrenganako onespena eta komunikazioa nagusituko diren harremanak bultzatuz.

Tratu onean hezteko auto-estimua, berdintasuna eta ondo tratatzen ikastea ere ezinbestekoak dira eta hiru ildo nagusi horiek landuko ditugu aurtengoan indarkeria sexistari aurre egiteko.

Umeak eskolara ailegatzen direnean ereduak eta rolak oso erroturik ekartzen dituzte. Mutiko

gehienek maskulinitate tradizionalaren ereduak: indarra, boterea, konpetitibitatea,... ondo barneratuta dute eta eredu hori aldatzen ez dugun bitartean berdintasunerako lan egitea oso zaila izango da. Hori dela eta jendarteko eragile eta sektore guztiok: familiak, eskolak, lantegiak, komunikabideak,... inplikatu eta lan egin behar dugu indarrean dauden ereduak eta estereotipoak aldatzeko, tratu txarrek eta biolentzia sexistak inolako justifikaziorik izango ez dutelarik. Guztion parte hartzea ezinbestekoa da, azken batean, berdintasunean bizitzeak aberasten gaitu.

Tratu txarrei aurre egiteko bide bakarra tratu onekoa da, beraz ikasleei, hau da neskei eta mutilei, bide hori garatu dezaten, tresnak eman beharko dizkiegu ikasita edota ezagutzen duten eredu hegemonikoak alda ditzaten. Azkenik esan, egunero eta uneoro gure lan egiteko moduan ikasleak era hezkidetzailan hezte iruditzen zaigula garrantzitsuena Laster bai kartela eta jardueren berri baita burutuko diren manifestazio eta ekintza desberdinetan parte hartzeko gonbidapena ere izango dituzue.

# berriak

areto-futbola eta neguko kirolak gehituko direlarik.

### **Ordenagailuak denontzat**

Gaztela-Mantxako Gobernu Batzordeak, lurraldeko irakasleen artean, 28.500 ordenagailu eramangarri banatuko ditu, hauen jarduera pedagogikoa errazteko helburuarekin. Nahiz eta neurri populista izan, gure instituzioek zerbait ikasi behar dute. IKTak ez dira hitzez bakarrik sartuko gelan.

### **Hezkuntza Erreforma Italian**

“Gelmini erreforma”, zeinek sustatzen duen ministroaren izena duen, Italiako gizartea borrokarako prest jarri du. Eskuineko ministra honek bere herrialdeko hezkuntzako gastua 8.000 miloi € baino gehiagotan murriztu nahi du, eta aldi berean, milaka profesional bota. Italiak Europako Hezkuntza sistema okerrenetako bat du, eta ministroari, erdi bidea hartzea besterik ez zaio burutu. Nahiz eta Nazioarteko gomendioak hezkuntza gastua handitu egin behar duela esan.

### **Kirol-Teknikarien Eskola Ofiziala**

Joan den urriak 10ean, kirol-teknikari prestakuntzarako Eskola Ofizialaren hasiera iragarri zen. Hau, araubide bereziko irakaskuntza bezala sailkatua izango da. Helburua, kualifikatua den pertsonalari balio akademiko eta profesionala ematea da, erdi mailakoa (1000 ordu) edo goimailakoa (beste 750 ordu gehiago) izan daitekeelarik. Eskola, Durangoko BHI Fray Juan de Zumárraga ikastetxean izango da, eta jarriko dituen espezialitateak honako hauek dira: mendia, eskalada, atletismoa, eskubaloia eta saskibaloia. Laster

### **Ikastolak Kooperatiba bakarra**

Euskal Herri osoko ikastolak, kooperatiba moduan erakunde bakar batean elkartzeko posibilitatea aztertzen ari dira. Ikastolen Elkarteko lehendakaria den Koldo Teillituk azaldu zuen bezala, horretarako Europar legeria erabiliko dute.

### **Erljioarekin bueltaka**

Hezkuntza Sailak, batxilergoan erlijioa ikasten ez duten ikasleek beste ikasgairik ez dutela hartu behar baieztatu du, eta horrela astero bi ikastordu gutxiago izango dituzte. Bestalde, ikastetxe publikoetan, derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzan, non erlijioaren ordezkari bat dagoen, polemika sortu da. Joan den ikasturtean, 160 ikastetxe publikok ez zuten erlijioa irakatsi, eskola laiko-gunea zela defendatzen zutelako. Sailak ikastetxean eskaerak daudenean, nahiz eta bakarra izan, erlijioa irakastea behartuko die. Eta bitartean, araututako ikastetxe batera joaten den eta erlijioa irakatsi nahi ez duenaren eskubideak nork defendatzen ditu? Ikastetxea uztea al da alternatiba bakarra?

### **Europako Parlamentutik**

Europako Parlamentuak Europar Batasunean irakasleen egoerari buruz txosten bat onartu du. Honen barruan, Gobernuak inbertsioa handitzea eskatu die, beste batzuen artean, lansarrietan, gelako ikasle kopurua murrizteko, hasiera eta etengabeko prestakuntzarako,... Hau guztia bagenekien, eta orain aplikatu behar dutenak aipaturiko txostena irakur dezan besterik ez da geratzen.